



# HERRI TXIKIEN EKONOMIA SUSPERTZEN

BATXILERGOKO 1. MAILA  
**EKONOMIA**

<b>ARLOA: EKONOMIA</b>	
<b>GAIA:</b> Herri txikien ekonomia suspertzen	
<b>MAILA:</b> Batxilergoko 1. maila	
<b>SAIOAK:</b> 14 ordu	
<b>PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA:</b>	
<p>Euskal Herrian, 1.000 biztanle baino gutxiago dituzten 409 udalerrietatik 117k populazioa galdu dute 1999. urteaz geroztik. Urtero-urtero ari dira populazioa galtzen. Egoera laster aldatzen ez bada, horietako 21 desagertzeko arriskuan egongo dira.</p> <p>Landa-eremuko herri txikiak gure kulturaren, nortasunaren, izaeraren eta hizkuntzaren iturburu eta zaintzaile dira. Euskararen arnagune nagusiak herri txikietan ditugu, eta, horregatik, gure hizkuntzaren etorkizunerako ere beharrezkoa dugu herri txikiak garatzea.</p> <p>Egungo munduan, globalizazio bortitzean murgildurik eta biztanleriaren gehiengoa hirietan kokatzen delarik, herri txikiek etengabe egokitu beharra dute. Zer leku dute Euskal Herriko, herri eta udalerrri txikiek? Zer erronka, arazo eta aukera dute aurrera egiteko?</p> <p>Arazo hori oinarri hartuta, herri txikien eta hirien ekonomiari buruzko zenbait gai planteatuko ditugu.</p>	
<b>ARAZO-EGOERA:</b>	
<b>TESTUINGURUA:</b>	<p>Herri txikietan, gure beharrianak asebetetzeko zailtasun handiak egoten dira. 40 km-ko bidaiak eta egin behar izaten dituzte umeek, askotan, eskolara joateko, edo adinekoek osasun-zentroetara hurbiltzeko. Hori guztia dela eta, gero eta jende gutxiago geratzen da herri txikietan bizitzen eta ogibidea ateratzen.</p> <p>Horrek arazo ekonomiko eta sozialak eragiten ditu.</p> <p>Bestalde, azken krisi ekonomikoa dela eta, gazte askok hirietatik alde egin dute, eta herri txikietara joan dira euren negozioak zabaltzera, ekintzaile gisa, eta, batzuetan, gune horietan inoiz ikusi ez diren jarduera ekonomiko berriak sortu dituzte. Horrek itxaropen-izpi bat ekarri du herri horientzat.</p> <p>Ikasleek errealitate hori ezagutzea nahi dugu eta herri txikien iraupenaren gainean sentsibilizatu.</p> <p>Horretarako, txango bat antolatuko dugu herri txiki</p>

	<p>batera. Bertan ezagutuko dute bertakoen bizimodua eta nolako eragozpenak dituzten oinarrizko beharrianak asebetetzeko.</p>
<b>ARAZOA:</b>	Zer egin dezakegu herri txikien ekonomia suspertzeko?
<b>XEDEA:</b>	Gure herrietan globalizazioak dituen zenbait ondorio ezagutzea eta horrek dakartzan arazoei aurre egiteko hartu ahal ditugun neurriez gogoeta egitea.
<b>ATAZA:</b>	<p>Informazio-kanpaina bat antolatuko dute ikasleek herri txiki askotan bizi dituzten zailtasunen berri emateko, eta kontsumo arduratsuak gure gizartean eta herri txikien ekonomian dituen onurak ezagutarazteko.</p> <p>Ikastetxeko kideei zuzenduta egongo da kanpaina hau. Taldeka egingo dute lan, eta talde bakoitzak hainbat ikasgelatan aurkeztuko du kanpaina.</p>
<p><b>LANDUTAKO OINARRIZKO KOMPETENTZIAK:</b> (Jardueretan)</p>	<p><b>A. ZEHAR-KOMPETENTZIAK:</b></p> <p>Honako hauek dira oinarrizko zehar-kompetentziak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia: : 1.J, 3.J, 4.J, 5.J, 6.J, 7.J, 8.J, 9.J,10.J, 11.J, 12.J, 13.J</li> <li>b) Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia: 1.J, 2.J, 3.J, 4.J, 5.J, 6.J, 7.J, 8.J, 9.J, 10.J, 11.J, 12.J, 13.J</li> <li>c) Elkarbizitzarako kompetentzia: 1.J, 2.J, 3.J, 4.J, 5.J, 6.J, 7.J, 8.J, 9.J, 10.J, 11.J, 12.J, 13.J, 14.J</li> <li>d) Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia: 1.J, 2.J, 3.J, 4.J, 5.J, 6.J, 7.J, 8.J, 9.J, 10.J, 11.J, 12.J, 13.J</li> <li>e) Izaten ikasteko kompetentzia: 1.J, 2.J, 3.J, 4.J, 5.J, 6.J, 7.J, 8.J, 9.J, 10.J, 11.J, 12.J, 13.J, 14.J, 15.J</li> </ul> <p><b>B. DIZIPLINA BARNEKO KOMPETENTZIAK:</b></p> <p>Honako hauek dira diziplina barruko oinarrizko kompetentziak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Teknologiarako kompetentzia: 4.J, 6.J, 7.J, 8.J, 10.J, 11.J, 12.J, 13.J</li> <li>b) Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia: 1.J, 2.J, 3.J, 4.J, 6.J, 7.J</li> </ul>

<p><b>HELBURUAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizakion beharrizan ekonomikoak identifikatzea.</li> <li>- Beharrizan mugagabeen eta baliabide urrien arteko gatazka ulertzea.</li> <li>- Ikaslea bere kontsumitzaile-izaeraz jabetzea.</li> <li>- Sistema ekonomikoak bereiztea, horietako bakoitzaren abantailen eta desabantailen gaineko iritzi pertsonala eratzeko.</li> <li>- Interesa izatea gaur egungo arazo ekonomiko nagusiak zein diren jakiteko, eta irizpide kritikoz eta solidarioz interpretatzea, kontuan izanda, batetik, aberastasuna eta boterea modu orekatuan banatuta ez egoteak arazoak sortzen dituela, eta, bestetik, natura-baliabideak ez direla mugagabeak. Helburua hau da: desberdintasun ekonomikoez eta baliabide naturalen gehiegizko ustiapenez ohartzea.</li> <li>- Gaur egungo arazo ekonomikoei buruzko iritzi pertsonalak ematea, eta iritzi horiek zehatz eta zorrotz ematea eta argudiatzea, batetik, eta era askotako iritzi eta ikuspegiak onartzea, bestetik.</li> <li>- Hazkunde ekonomikoak ingurumenean eta pertsonen bizi-kalitatean nolako eragina duten aztertu eta irizpide kritikoz ebaluatzea.</li> <li>- Globalizazioak herri txikien ekonomian nolako ondorioak dituen ulertzea.</li> <li>- Inguruko arazo ekonomikoei heltzea, autonomiaz jokatzuz eta arrazoituz; gizarte-zientzien ikerketa-prozedurak eta zenbait informazio-iturri eta bitarteko erabiltzea (besteak beste, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak), eta horiek aztertu eta interpretatzean zorrotz jokatu behar dela ohartzea.</li> </ul>
<p><b>EDUKIAK:</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekonomia eta eskasia</li> <li>- Gizarte-harremanen eduki ekonomikoa: jabetza-, produkzio-, banaketa- eta kontsumo-harremanak</li> <li>- Sistema ekonomikoak: sistema kapitalista eta ekonomia solidarioa</li> <li>- Sistema ekonomikoek aldaketa teknikoan, ekonomikoan eta politikoan ondorioz izandako azken bilakaeraren gaineko iritziak</li> <li>- Nekazaritza-produktuen merkatua</li> <li>- Globalizazioaren ondorioak</li> <li>- Nolako eragina duen hazkunde ekonomikoak ingurunean eta bizi-kalitatean</li> <li>- Nolako garrantzia duen finantza-sistemak herrialdearen bizitza ekonomikoan</li> </ul>

<b>JARDUEREN SEKUENTZIA:</b>	<p><b>A. HASIERAKO FASEA: 1. J, 2.J</b></p> <p><b>B. GARAPENAREN FASEA: 3.J, 4.J, 5.J, 6.J, 7.J, 8.J, 9.J, 10.J, 11.J</b></p> <p><b>C. APLIKAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN FASEA: 12.J</b></p> <p><b>D. OROKORTZEA ETA TRANSFERENTZIA: 13.J</b></p>
<b>EBALUAZIOA</b>	<p><b>A. IRIZPIDEAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizarteen oinarrizko arazo ekonomikoak ezagutzea, arazo horiei sistema ekonomiko jakin batean konponbidea emateko modua arrazoitzea, eta modu horren abantailak eta desabantailak adieraztea.</li> <li>- Enpresa-jardueraren helburuak, eginkizunak eta gizartean eta pertsonen bizitzan jarduera horrek dituen ondorioak azaltzea, eta ingurune hurbileko benetako erreferentziak bilatzea (herrikoak, probintziakoak, Euskal Herrikoak).</li> <li>- Ekonomiaren globalizazioaren kausak eta ondorioak aztertzea eta balioestea.</li> <li>- Hazkundeak, krisi ekonomikoek, ekonomia-integrazioak eta merkatu globalak pertsonen bizi-kalitatean, ingurumenean eta aberastasunaren tokian-tokiko banaketan zer ondorio dituzten aintzat hartzea.</li> </ul> <p><b>B. ADIERAZLEAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Badaki eskasia eta hautatzeko beharrezana direla sistema ekonomikoaren oinarrizko arazoek giltzarriak.</li> <li>- Sistema ekonomiko nagusiek arazo horiek lantzeko eta konpontzeko modu bereziak dituztela ohartzen da.</li> <li>- Arazo ekonomikoek konponbidea emateko moduak konparatzen ditu</li> <li>- Enpresen jardueraren ondorioak aztertzen eta analizatzen ditu.</li> <li>- Globalizazio ekonomikoak herrialdeetan dituen ondorioak eta inplikazioak azaltzen ditu, eta horiek arautzeko eta koordinatzeko beharrezan hausnartzen du.</li> <li>- Finantza-sistemaren egitekoa balioesten du, aurrezkoa inbertsiora bideratzeko elementua den aldetik, eta haren osagai diren produktuak eta merkatuak identifikatzen ditu.</li> </ul>

	<b>C. TRESNAK:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>● Talde-laneko kontratua</li><li>● Idatzizko probak</li><li>● Ikasleen behaketa</li><li>● Talde-lanak</li></ul>

### ARAZO-EGOERA

#### Zer egin daiteke herri txikien ekonomia suspertzeko?



**Landa-eremuko herri txikiak gure kulturaren, nortasunaren, izaeraren eta hizkuntzaren iturburu eta zaintzaile dira. Euskararen arnagune nagusiak herri txikietan ditugu, eta, horregatik, gure hizkuntzaren etorkizunerako ere beharrezkoa dugu herri txikien garapena.**

**Gaur egun, mundua globalizazio-przesu bortitzean murgildurik dago eta biztanle gehienak hirietan bizi dira, zer leku dute Euskal Herriko herri eta udalherri txikiek? Zer erronka, arazo eta aukera ditugu aurrera egiteko? Eta zelan erantzun beharko genieke? Zer ematen diote herri txikiek gizarteari? Zer eskatzen diote herri txikiek gizarteari?**

Unitate didaktiko honetan, arazo honi erantzuna ematen saiatuko gara: Zer egin daiteke herri txikien ekonomia suspertzeko?

Horri erantzuteko, jakin behar dugu zein diren horien beharrianak, horiek asebetetzeko baliabideak, garatu beharreko jarduera ekonomikoak, zer egin dezakeen sektore publikoak...

Landa-eremuko gaur egungo egoerari buruzko informazio-kanpaina bat antolatzea izango da zuen erronka, ikastetxeko kideei herri txikien ekonomiaren alde zer egin dezakegun ezagutarazteko.

## 1. Jarduera

### LANTALDEAK

Lantaldeak egingo dituzue eta lantalde bakoitzean erabaki hauek hartu beharko dituzue:

- Arduradunak izendatuko dituzue.
- Lana taldekideen artean banatuko duzue.
- Lanaren helburua definitu eta lan-metodoa zehaztuko duzue.
- Lantaldearen arauak ezarriko dituzue: parte-hartzea, koordinazioa...
- Erabakiak nola hartu xedatuko duzue.
- Denbora (epeak...) nola kudeatu finkatuko duzue.
- Nolako espazioak eta materialak behar diren zehaztuko duzue.
- Beharrezkotzat jotzen dituzuen bestelako alderdiak deliberatuko dituzue.

## 2. Jarduera

### TALDE-LANEKO KONTRATUA

Gure taldeko kideok erabaki dugu datozen 3 asteetan elkarrekin lan egitea Euskal Herriko probintzia baten ekonomiari buruzko ikerketa bat egiteko, eta konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Astean bitan elkartzea, elkarrekin lan egiteko.
- Taldean arduraz lan egitea
- Lana egiteko elkarri laguntzea.
- Taldean atazak ekitatiboki banatzea.
- Lanak taldean egiteko erabakitako prozedurari jarraitzea.
- Lan zehatza eta kalitatezkoa aurkeztea.
- Lana dagokion egunean aurkeztea.

Irakasleak konpromiso hauek hartzen ditu: ikasleek eskatzen duten informazio guztia ematen saiatuko da, eta zalantza eta behar guztietan laguntzen ahaleginduko da.

Ikasleen sinadura

Irakaslearen sinadura



## GARAPENAREN FASEA

---

### 3. Jarduera



Pentsatu zuetako bakoitzak eta zuen familiak dituzuen beharrizanez. Egin beharrizan horien zerrenda eta eztabaidatu taldean ea modu berean asebeteko dituen herri baten bizi den familiak eta hirian bizi denak.

### 4. Jarduera

Txango bat egingo dugu herri txiki batera, eta han ikerketa-lantxo bat egin beharko duzue. Helburua izango da herritarrek euren beharrizanak asetzeko dituzten eragozpenak ezagutzea.

4.1. Ikertu txantiloian agertutako zerbitzuak lor daitezkeen herrian ala ez.

	Bai/Ez	Zenbat?	Zenbat km-ra?
			
			

			
			
			
			
			
			
			
			
			
			
<p>Bestelakoak...</p>			

4.2. Bilatu honako gai hauei buruzko informazioa:

- a) Biztanleen kopurua eta egitura adinaren arabera (eustat.eus)
- b) Zein da hurbilen dagoen hiriburua. Zenbat kilometrora?
- c) Zein dira herrian lana sortzen duten jarduera ekonomiko nagusiak?
- d) Zer motatako enpresak dira: txikiak, ertainak, handiak?
- e) Langileen zer ehunekok egiten du lan udalerritik kanpo (gutxi gorabehera)?
- f) Zer zerbitzuren falta nabarmentzen dute gehien herritarrek?
- g) ...

## 5. Jarduera

Aztertu ikerketa-lanaren emaitzak taldean eta prestatu txosten bat , ikaskideen aurrean aurkezteko, atera dituzuen ondorioekin.

## 6. Jarduera

Irakurri testu hau:

### **Tokiko nekazaritza-produktuak, ekologikoak eta bidezko merkataritzakoak**

Jaten ditugun oinarritzko elikagai asko ehunka edo milaka kilometrora dauden lekuetatik datoz. Hori pentsaezina zen duela 30 urte. Horren ondorioz sortutako kostuak handiak izan dira ingurumenaren arloan; esate baterako, energia lar kontsumitzea, garraioan sortutako CO<sub>2</sub> igorpenak gehitzea, betiko paisaia naturala desagertzea, jarduera txikiak bertan behera uztea, tokiko barietateak galtzea...

Zer dira tokiko produktuak? "Tokiko produktua" terminoak elikagaiaren sorlekuaren eta kontsumo-lekuaren arteko "zentsuzko" distantziarekin dauka zerikusia. Ingurune hurbileko nekazaritza edo abeltzaintza produktuak hartzen dira kontuan. Tokiko produktuak kontsumituz gero, landa-inguruneko eta tokiko ekonomiari eutsiko diogu, gure paisaiaren nortasunaren elementu nabarietara eutsiko diegu, joan-etorri luzeak saihestuko ditugu, energiaren zentsuzko erabilera sustatuko dugu, ortuarien, fruten, hegaztien... barietateak berreskuratuko ditugu.

Bertako produktuak defendatzeko arrazoi ugari ditugu.

- Bertako produktuak jatea erabakitzen dugunean, gure zonaldearen ekonomia bultzatzen dugu.
- Produktu horiek janda, jaten ditugun elikagai gehienek jasaten duten zentzugabeko garraioa ez egotea lortzen dugu. Aldi berean, horrek eragiten duen kutsadura saihesten dugu.
- Produktua bertakoa izanda -gure zonaldean eskuz ekoitzi edo landu den produktua-, gure kultura eta tradizioak defendatuko ditugu.
- Kalitate eta segurtasun handiagoa lortuko dugu. Kalitatea, produktuak freskoagoak izango direlako, eta horien ezaugarri organoleptikoei eutsiko diegulako.

Bertako produktuak, gure lurraldean ekoitzi eta landutakoa ez ezik, modu jasangarrian ekoitzitako produktua izan behar du, tradiziozko sistemak baliatuta, eta produktuari zapora eta usain ezberdina emango dioten bertako barietateak erabilia.



Erantzun galdera hauei taldean:










- a) Bilatu **bidezko merkataritza** kontzeptuaren definizio bat.
- b) Bidezko merkataritzaren arloan lan egiten duten erakundeek irizpide batzuk bete behar dituzte. Zein dira Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundeak ezarri dituen 10 irizpide horiek? Internet erabil dezakezu informazioa jasotzeko.
- c) Zer ondorio negatibo ditu kontsumitutako produktuak hain urrunetik ekartzeak?







- d) Kontsumitzaile moduan, zelan eutsi ahal diogu geure inguruko herri txikien ekonomiari?

## 7. Jarduera

Ikusi esteka honetako bideoa: [Ekonomia solidarioa](#) (Ekonomia-burujabetza/elikadura-burujabetza).

Ondoren, ikerketa bat egingo duzue taldeka: gure bizilekutik gertu dauden banaketako enpresak bisitatuko dituzue, eta bertan saltzen diren nekazaritza-produktuen jatorriaz informazioa jasoko duzue. Taldeen artean banatu ahal da lana, hau da, talde bakoitzak supermerkatu bat bakarrik bisitatuko du. Honako txantilo hau erabil dezakezue:

Produktua				
				
				
				
				
				

Gelan, jaso duzuen informazioa partekatuko duzue talde guztiok, eta, ondoren, taula hau beteko duzue, eta supermerkatu bakoitzean zenbat produktu aurkitu duzuen adieraziko duzue jatorriaren arabera:

				
Tokiko produktuak				
Estatuko produktuak				
Atzerriko produktuak				

Taldean hausnartzeko eta eztabaidatzeko:

- Zer ondorio atera dituzue egindako ikerketa-lanetik?
- Bertoko produktuak bakarrik kontsumitu nahi baditugu, zer egin ahal dugu?
- Badakizu zer diren [kontsumo-taldeak](#)? Ikusi estekako bideoa.

## 8. jarduera

Ikusi bideo hau:

### [Euskadiko nekazaritzako ustiategiak](#)

Bideoan agertzen diren ideiak / kontzeptuak

Erantzun galdera hauei:

- Zeri ematen diote garrantzi handiagoa ikusitako baserrietan: ekoizten duten kantitateari ala produktuen kalitateari?
- Bideoan agertzen diren nekazaritza-ustiategietan, zer banaketa mota erabiltzen da?

- Zer abantaila ditu banaketa-kanal hori erabiltzeak kontsumitzailearentzat? Eta ekoizlearentzat?
- Uste duzu ustiategi handiek ere banaketa zuzena erabiltzen dutela? Zergatik?
- Uste duzu horrelako ustiategietan inbertsioak egitea beharrezkoa dela? Bideoan ikusitako adibide bat jarriko duzu?
- Azaldu esaldi honen esanahia: "Guk ustiapenaren ziklo osoa ixten dugu".
- Handiekin alderatuta, zer desabantaila dituzte ustiategi txiki horiek bizirik irauteko?

## 9. Jarduera

**Irakurri albistea eta, taldean, saiatu azpimarratutako esaldien esanahia azaltzen:**

Sailburuak azpimarratu du garrantzitsua dela **lehiakortasuna** bultzatzea ekonomia produktibo osoan, baita lehen sektorean ere, "**sektoreen artean garapenean dauden aldeak murriztuta eta lehen sektore berritzaile eta elikagai-industria lehiakorraren alde eginda**". Horretarako, sailburuak esan duenez, beharrezkoa da, halaber, Euskadiko landa-guneetan eta itsasertzeko guneetan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea bermatzea.

"**Gure espezializazio estrategian, aukera-nitxotzat hartu da elikadura**; hori dela eta, azpimarratzen dugu beharrezkoa dela **elikadura-kate osoa** egituratzea: lehenengo, nekazari eta arrantzaleak; eta gero, industria eraldatzaile, zentro teknologiko eta enpresa espezializatuak, bai eta **industria merkaturatzaileak** ere; eta kontuan izanda, azkenik, sukaldaritza eta gastronomia arloak".

Daukagun elikadura-kate osoa lehiakorra izan dadin, berrikuntza fase guztietan hartu behar da aintzat.

Apustu horren adibide gisa, Arantxa Tapiak laguntza sorta bat iragarri du eremu horretan, nekazaritza-, arrantza- eta elikagaigintza-sektoreak antolatzeko prozesuetan berrikuntzak sendotzeko, baita eremu horretan ikerketak eta garapenak egin eta landa-guneetan inbertsioak sustatzeko ere. Tapia sailburuak adierazi duenez, "laguntza horiek Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailak legegintzaldi honetarako markatu duen strategiaren baitan sartzen dira; izan ere, strategiaren asmoa da lehen sektoreko enpresen lehiakortasuna indartzea eta landa-guneetan eta itsasertzeko guneetan **jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa** eta bizi-kalitatea areagotzen laguntzea".




## 10. jarduera

### KOOPERATIBAK

Ekonomia solidarioa kooperatibekin lotuta dago. Zergatik? Zer ezaugarri dituzte kooperatibek?

Ikusi bideo hauek: [Uztarokooperatiba](#) / [Esnetik](#)



## 11. jarduera

### BALIABIDE FINANTZARIOAK (DIRUA)



Edozein jarduera ekonomiko aurrera eramateko, dirua beharrezkoa da, bai eta nekazaritza-arloan ere. Baina ez da gauza erraza baliabide hori eskuratzea.

Gaur egun, bada beste modu bat dirua lortzeko ekonomia solidarioarekin lotutako proiektuetarako:

## **BANKU ETIKOAK**

**Gizartearentzat eta ingurumenarentzat proiektu onuragarriak babestea dute xede. Horregatik, banku etikoek ez dute inbertitzen, besteak beste, armen trafikoan edota ingurumenaren suntsipenean eragin zuzena duten enpreetan. Proiektu sozial eta solidarioak finantzatzen dituzte.**

Ikusi bideo hau: [Banku etikoak](#)

**Zein dira banku etiko eta ohiko bankuen arteko alderik inportanteenak?**

## APLIKAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-FASEA

---

### 12. Jarduera

Tenorea da unitate didaktiko honetan ikasitakoa beste gelako ikaskideekin partekatzeko. Talde bakoitzak gela batean aurkeztuko du bere lana. Hortaz, aurkezpen digitala prestatu beharko duzue. Helburua ahu da: ikastetxeko ikasleak eta irakasleak landa-guneko herri txikien garapenerako dauden oztopoez ohartzea, eta denon artean laguntzeko egin dezakegunaren berri ematea.

Entzuleek zuen aurkezpena baloratuko dute. Kontuan izan zuen lana honako errubrika honen arabera baloratuko dela:

<b>Ebaluatutako alderdiak</b>	<b>Bikaina</b>	<b>Ondo</b>	<b>Zuzena</b>	<b>Eskasa</b>
<b>Edukia</b>	Gaia ongi daki; ez du akatsik egiten, ez du zalantzarik.	Gaiaren atal batzuk ongi ulertzen dituela erakusten du. Aurkezpen arina, oso akats gutxi.	Zuzenketa batzuk egin behar ditu: noiz edo noiz duda-mudatan dagoela dirudi.	Etengabe zuzentzen du. Ez du gaiaren gaineko ezagutzerik erakusten.
<b>Interesa</b>	Entzuleen arreta bereganatzen du eta interesari eusten dio aurkezpen osoan.	Hasieran interesa du, baina monotono samarra bilakatzen da.	Jendearen arreta lortzea edo hari eustea kostatzen zaio.	Ez du ia baliabiderik erabiltzen jendearen interesari eusteko.
<b>Ahotsa</b>	Ahots argia du, bokalizazio ona, intonazio egokia, ñabarduraz betea, limurtzailea.	Ahots argia du, bokalizazio ona.	Atal batzuk nekez ulertzen dira.	Esaldi gehienak ez dira ulertzen.
<b>Jarrera</b>	Jarrera ona du: lasai eta seguru dagoela antzematen zaio. Aurkezpenean begietara begiratzen die guztiei.	Jarrera ona du eta batzuetan pertsoneri begietara begiratzen die.	Jarrera egokia da besterik gabe, eta ez die begiratzen entzuleei.	Jarrera txarra du edota ez die begiratzen pertsoneri aurkezpenean.

<b>Denbora</b>	Denbora aurreikusitakora egokitua; amaieran ideia nagusiei heldu die berriz, eta aurkezpena biribildu du.	Denbora aurreikusitakora egokitua, baina amaiera presazkoa edo luzatua da, denbora kontrolatu ez duelako.	Denborara egokitu gabe. Laburregia da.	Luzeegia da edo ez da nahikoa izan gaia behar bezala garatzeko.
<b>Euskarria</b>	Aurkezpena ikusizko euskarriekin lagundu du (irudiak, bideoak...); bereziki erakargarriak eta kalitate handikoak izan dira horiek.	Ikusizko euskarri egokiak eta interesgarriak (irudiak, bideoak...) erabili ditu.	Ikusizko euskarri egokiak (irudiak, bideoak...) erabili ditu.	Ikusizko euskarri desegokiak erabili ditu.
<b>Informazioaren antolaera</b>	Informazioa modu argi eta logikoan dago antolaturik eta egindako galderari erantzuten die.	Informazio gehiena modu argi eta logikoan antolatzen da, baina galderaren bat erantzun egokirik gabe gelditzen da.	Ez dago informazioa antolatzeko plan argirik .	Informazioa barreiaturik ageri da, antolaketa gabe.

### 13. Jarduera

**Eskola bakoitzak bere jangela-eredua aukeratu ahal izatea hitzartu dute Legebiltzarrean**

**Eskola bakoitzak bere jantokiaren kudeaketa-eredua aukeratzeko mozioa onartu dute Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuran.**



Eskola-jantoki osasuntsuago, hurbilago eta bidezkoagoaren aldeko mobilizazioa egin du *Gure platera, gure aukera* plataformak.

Plataformaren arabera, 16 milioi menu baino gehiago banatzen dira urtero Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako eskoletan. Menu horiek guztiak zazpi *catering* enpresak kudeatzen dituzte.

Plataformako kideek jakinarazi dutenez, zerbitzu hori kudeatzen duten zazpi enpresek 12 urte daramatzate prezioak ezartzen merkatua beren artean banatzeko, “familiei eta erakunde publikoei iruzur eginez”. Hori dela eta, uste dute gaur egungo kudeaketak “porrot” egin duela, eta eskatu dute 2000. urtean onartutako arautegia aldatzeko. Lege berriak aukera eman behar die “nahi izanez gero”, eskolako jangela zentroak berak kudeatzeko, eta Eusko Jaurlaritzak bidea erraztu behar die hori eskatzen duten eskolei. Sukaldeak desagertu egin dira pixkanaka eskoletatik, eta dagoeneko janaria ez da eskoletan bertan prestatzen.

Zure ikastetxeko jantokian, bertako elikagai ekologikoak sartzeko proposamena egin nahi diozue zuzendaritzari. Taldeka, gutun bana idatzi beharko diozue zuzendariari, elikadura-burujabetzak kontsumitzaileentzat eta gizartearentzat dituen onurak azaltzeko.

**14. Jarduera** Lankidetzan egindako lanari buruzko gogoeta ere egin behar dugu, eta hobetzeko helburuak jarri. Nola funtzionatzen du gure taldeak?

	<b>Hobetu behar dugu</b>	<b>Ondo</b>	<b>Oso ondo</b>
Atazak amaitu ditugu?			
Denbora egoki erabili dugu?			
Guztiok aurrera egin al dugu gure ikasteko prozesuan?			
Bete ditugu konpromiso pertsonalak?			
Bete al ditu taldekide bakoitzak dagozkion atazak?			
Zer egiten dugu bereziki ondo?			
Zer hobetu behar dugu?			

## 15. Jarduera

Unitate osoan egin duzun lanaren gaineko gogoeta egitea da helburua. Horretarako, bete ezazu honako taula hau:

	<b>Beti</b>	<b>Gehienetan</b>	<b>Gutxitan</b>
Arduraz hartu dut parte.			
Proposatutako jarduerak ulertu ditut.			
Taldeari ideiak eman dizkiot jarduerak gauzatzeko.			
Nire ideiak eta ikuspegiak azaldu ditut.			
Beste batzuek ere parte har dezaten lagundu dut.			
Ikaskideen lana entzun eta baloratu dut.			
Lan guztiak atzerapenik gabe egin ditut.			

Adieraz itzazu gai hau lantzean ikasitako hiru gauza, lehen ez zenekizkienak:

- 1.
- 2.
- 3.